Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2015eko irailaren 1a, asteartea — 166 — Martes, a 1 de septiembre de 2015

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ANTZUOLAKO UDALA

*Antzuolako herriko patioaren erabilera arautzen duen ordenantza.*

Antzuolako Herriko patioa kirolerako, jolaserako zein aisia ekitaldietarako izango da. Udalak horren erabilera arautuko du, ondoren jasotakoari jarraituz:

*Lehenengoa:* Herriko patioa eskola orduetan eskolaren erabilerarako izango da. Hortik aurrera, erabiltzaileen aukeran geratuko da eta aisia gune zein kirol gune izango da.

Kultur eta kirol ekintzak gauzatzeko ere erabiliko da. Hileta zibilak egiteko ere erabili ahal izango da.

Aldi berean, areto-kiroltzat ezagutzen ditugun baimendutako kiroletan jarduteko erabili ahal izango da Herriko patioa, besteak beste: atletismoan, eskubaloian, saskibaloian, boleibolean, areto-futbolean.

Kirol edo ekintzaren batean jarduteko kantxa barruan tresnak ipintzea beharrezkoa balitz, horiek kontuz garraiatu beharko dira. Aipatutako tresnak zorua hondatuko ez duen euskarri baten gainean egon beharko dute.

*Bigarrena:* kantxan zikinduko duen ezer ez da jango (pipak, fruitu lehorrak, gozokiak, etab.), ezta edango ere (latak, botilak), udalak baimendutako ekitaldietan, izan ezik.

Kantxatik kanpo zerbait janez edo edanez gero, jasotzeaz edo garbi lagatzeaz kontsumitzailea arduratuko da.

*Hirugarrena:* antzuolarrek izango dute lehentasuna patioa erabiltzeko, hurrenez hurren:

1. Udala.
2. Herri ikastetxeak, eskola garaian.
3. Herriko erakundeek.
4. Herritarrek. Antzuolarrek izango dute lehentasuna beste herrietakoen aurrean.

Erabilera libreko orduetan Antzuolako haurrek eta 16 urtetik beherako gazteek izango dute lehentasuna, udalak edo erakunderen batek orduak hartuta dauzkanean izan ezik.

Patioan antzuolarrak ez direnak jokatzen ari badira, eta herritarrak azaltzen badira jokatzera, herritarrek dutenez jokatzeko lehentasuna, kanpotarrek jokatzeari utzi egin beharko diote.

*Laugarrena:* Herriko patioaren erabilera eta ordutegia hauexek izango dira:

3.1. Astelehenetik ostiralera:

- Eskola garaian:

— 09:00etatik 16:30era.

Herri ikastetxea. Asteazkenetan* 12:30 arte, asteazken arratsaldeetan eskolan jai izaten delako.

— 16:30etik 19:00etara, asteazkenetan izan ezik.

## AYUNTAMIENTO DE ANTZUOLA

*Ordenanza que regula el uso del patio del pueblo de Antzuola.*

El patio del pueblo de Antzuola se utilizará para actividades de carácter deportivo, lúdico y de ocio. El Ayuntamiento regulará su uso, según lo indicado a continuación:

*Primero:* durante el horario escolar, el patio del pueblo será para el uso del centro escolar. Después del horario escolar, quedará a elección de las personas usuarias y se utilizará como zona de ocio y deportes.

Además, se utilizará para realizar actividades culturales y deportivas. También se podrá utilizar para celebrar funerales civiles.

Al mismo tiempo, el patio del pueblo se podrá utilizar para actividades de deportes considerados como deportes de sala, como el atletismo, el balonmano, el baloncesto, el boleibol, el futbol sala.

En caso de que sea necesario colocar elementos para realizar alguna actividad dentro de la cancha, dichos elementos se deberán transportar con el debido cuidado. Los elementos se deberán colocar en un soporte que no dañe el suelo.

*Segundo:* dentro de la cancha no se podrá comer nada que la ensucie (pipas, frutos secos, dulces, etc.), y tampoco se podrá beber (latas, botellas), excepto en los actos autorizados por el ayuntamiento.

En caso de que se coma o beba algo fuera de la cancha, la persona consumidora se encargará de recoger y dejar todo limpio.

*Tercero:* los/las habitantes de Antzuola tendrán prioridad para utilizar el patio en este orden:

1. El Ayuntamiento.
2. La escuela del pueblo, durante el curso.
3. Las entidades del pueblo.
4. La gente del pueblo. Los/las habitantes de Antzuola tendrán prioridad sobre la gente de otros pueblos.

Durante el horario de uso libre, los niños y las niñas de Antzuola y las personas menores de 16 años tendrán prioridad, excepto cuando el Ayuntamiento o alguna entidad hayan reservado las horas.

Si en el patio están jugando personas que no son habitantes de Antzuola y gente de Antzuola aparece para jugar, como la gente del pueblo tiene prioridad, las personas de fuera deberán dejar de jugar.

*Cuarto:* éstos serán los horarios y usos del patio:

3.1. De lunes a viernes:

- Durante el curso escolar:

— De 09:00 a 16:30.

La escuela del pueblo. Los miércoles* hasta las 12:30, porque los miércoles por la tarde no hay clase.

— De 16:30 a 19:00, excepto los miércoles.

EK\CV GAO-I-2015-07706

Erabilera librea, baina lehentasuna 16 urtetik beherako antzuolarrek izango dute.

Denbora horretan patioko eremua partekatu egingo da. Bertan hiru kirol gune daudenez, hiru gune horien araberako banaketa egin ahal izango da. Beraz, talde desberdinak baldin badaude jokatzeko, ezingo da kantxa osoa kirol edo jarduera bakarra egiteko erabili.

— Asteazken arratsaldeetan 12 urtetik gorako gazteek izango dute erabiltzeko lehentasuna nahi duten ekintzan jarduteko: patinetan, futbolean, eskubaloian edo dena delako jardueran.

Jarduera bakoitzak ordubete iraungo du gehienez.

19:00etatik aurrera, erreserbarik egonez gero, erreserbakoek dute jokatzeko eskubidea.

— Ostiral arratsaldean, 17:00etatik aurrera, eskola kirolerako erabiliko da.

— 19:00etatik 22:00etara.

Kantxa erreserbatzeko aukera.

Tarte horretan patioko kantxa osoa kirolgune bakar bat bezala hartzeko aukera dago, eta jarduera bakarrean ibili ahal izango da, baina jarduerak, gehienez, ordubete iraungo du.

• Aste Santuan, Gabonetan eta udako umeen oporretan:

— 09:00etatik 19:00etara.

Erabilera librea.

Jarduera bakoitzak ordubete iraungo du gehienez.

— 19:00etatik 22:00etara.

Kantxa erreserbatzeko aukera.

Tarte horretan patioko kantxa osoa kirolgune bakar bat bezala hartzeko aukera dago, eta jarduera bakarrean ibili ahal izango da, baina jarduerak, gehienez, ordubete iraungo du.

3.2. Zapatu, domeka eta jaiegunetako ordutegia:

09:00etatik 22:00etara: baldin eta ekitaldirik antolatuta ez badago, erabilera librea. Jarduera bakoitzak ordubete iraungo du gehienez.

Asteburuetan ez da erreserbarik egingo.

*Bosgarrena:* Erreserbak.

Astean zehar, 19:00etatik aurrera erreserbatzeko aukera izango da.

Jai egunetan, asteburuetan eta abuztuan ez da erreserba eta ordu-eskaera txandarik izango. Beraz, kantxa ez zaie erreserbatuko erabiltzaileei kirolean jokatzeko.

*Seigarrena:* ikasturtero, uztaileko lehen astean, ordu-eskaera txanda bat irekiko da, jendeak izena eman dezan, Herriko patioa erreserbatzeko eskubidearekin. Horretarako aukera dagoela udal baliabideen bidez jakinaraziko da.

Eskatzaile bakoitzak bere taldea osatzen dutenen izenak eman beharko ditu udaletxean, zozketa egin baino bost egun lehenago.

erreserba egiten denean ordu bererako talde batek baino gehiagok izena emanez gero, talde horien artean zozketa egingo da. Nolanahi ere, Antzuolako bizilagunek lehentasuna izango dute, eta horrelakotzat hartzen dira gutxienez taldeko erdiak Antzuolako bizilagunak edo bertan jaioak direnean.

Libre geratzen diren orduak beste udalerrietakoen artean banatuko edo zozketatu ahal izango dira.

— Zozketaren prozedura:

Lehenengoaren edo titularraren izena bakarrik sartuko da zozketan.

Uso libre, pero los/las jóvenes de Antzuola de hasta 16 años tendrán prioridad.

Durante ese tiempo, el patio se compartirá. Como el patio tiene tres zonas de deporte, se podrá hacer una división según esas zonas. Por lo tanto, si hay más de un grupo de gente que quiera jugar, no se podrá utilizar toda la cancha para un único deporte o actividad.

— Los miércoles por la tarde los/las jóvenes de 12 años en adelante tendrán prioridad para realizar la actividad que quieran: patines, fútbol, balonmano o lo que sea.

Cada actividad durará un máximo de una hora.

A partir de las 19:00, en caso de que haya alguna reserva, las personas que la hayan hecho serán las que tendrán derecho a jugar.

— Los viernes por la tarde, a partir de las 17:00, se utilizará para el deporte escolar.

— De 19:00 a 22:00.

Se puede reservar la cancha.

En ese horario, toda la cancha del patio se puede utilizar como una zona deportiva única, y se podrá realizar una sola actividad, de un máximo de una hora.

• En Semana Santa, Navidad y durante las vacaciones de verano:

— De 09:00 a 19:00.

Uso libre.

Cada actividad durará un máximo de una hora.

— De 19:00 a 22:00.

Se puede reservar la cancha.

En ese horario, toda la cancha del patio se puede utilizar como una zona deportiva única, y se podrá realizar una sola actividad, de un máximo de una hora.

3.2. Horario de sábados, domingos y festivos:

De 09:00 a 22:00: si no se ha organizado ningún evento, uso libre. Cada actividad durará un máximo de una hora.

Los fines de semana no se realizarán reservas.

*Quinto:* Reservas.

Durante la semana, se podrá reservar a partir de las 19:00.

Durante los festivos, los fines de semana y en agosto no habrá ni reservas y solicitudes de turnos. Por lo tanto, la cancha no se reservará para actividades deportivas.

*Sexto:* cada curso, la primera semana de julio se abrirá un turno de petición de horas con derecho a reservar el patio del pueblo para que la gente se apunte. Se informará de esta posibilidad mediante los medios del Ayuntamiento.

Cinco días antes del sorteo, cada solicitante deberá indicar en el ayuntamiento los nombres de las personas que forman parte de su grupo.

Si al realizar la reserva hay más de un grupo que se ha apuntado en un mismo horario, se realizará un sorteo entre los mismos. En cualquier caso, las población de Antzuola tendrá prioridad, y se considerará que son de Antzuola los grupos en los que al menos la mitad de sus integrantes sean de Antzuola o nacidos aquí.

Las horas que queden libres se podrán repartir o sortear entre personas de otros pueblos.

— Procedimiento del sorteo:

Solamente se incluirá en el sorteo el nombre de la primera persona o del titular.

EK\CV GAO-I-2015-07706

Eskatzaile edo talde-titularren izen guztiak lehenengo zozketan sartuko dira. Izenak agertzen diren neurrian, hauek asteko taulatik ordu bakar bat aukeratu ahal izango dute.

Ordu libreak herritik kanpoko eskatzaileen artean zozketatuko dira, eta prozedura berdina jarraituko da.

Zozketa jendaurrean egingo da, udaletxean. Horretaz arduratuko dena kirol zinegotzia eta teknikaria izango dira. Kirol zinegotziak behar dituen ahalmenak izango ditu zozketa egiterakoan sortzen den edozein arazo konpontzeko.

*Zazpigarrena:* Izena emandakoei txandaren emaitzen berri Antzuolako jaien ondorengo astean emango zaie.

Hartara, erreserbadunek irail hasieratik egutegi berriaren arabera jokatzeko aukera izango dute.

*Zortzigarrena:* Herriko patioa erabiltzeko tarifak ordenantza fiskalen bidez ezarriko dira.

Tarifan patioa erreserbatzea dago aurreikusita.

Erreserbak ordubete hartzen du, ez gehiago. Beroketa egiteko helburuz, kantxan dabilen jendearen jarduna ezingo da oztopatu, are gutxiago jendea handik bidali.

*Bederatzigarrena:* tarifak ordaintzea.

Tarifen ordainketak hilero egingo dira transferentzia bidez.

Tarifa ordaintzen ez duten eskatzaileek ordu-erreserba galduko dute, beraz, ordu horiek hutsik geratuko dira beste jokalarientzat.

Tarifa kobratu eta gero ez da onartuko erreserbak baliogabetzea.

*Hamargarrena:* entitate edo elkarteetako ikasle edo erabiltzaileek, kirolean dihardutenean, joko-arduradunaren, irakaslearen, begiralearen etabarren zuzendaritzapean egondo dira, eta azken hauek izango dira beti taldearen erantzule. Osterantzean, erabiltzaileena izango da ardura hori.

Eskolako aterpearen erabilera desegokia egiten bada, Udalak erabilera baimena bertan behera lagatzeko eskubidea izango du. Eta hala badagokio, zehapen bidea ireki dezake.

*Hamaikagarrena:* Udalak Herriko patioa erabiltzeko eskubidea du komenigarritzat jotzen dituen ekintzetarako eta aginduz edo enkarguz antola daitezkeenetarako.

*Hamabigarrena:* ekolako patioko aldagelak edozein pertsona edo taldek erabili ahal izango ditu, erabilera horren premia ikusten denean, Udalari aurrez eskatu eta horretarako baimena ematen duenean.

*Hamahirugarrena:* Herriko patioan ezohiko kirol edo ekitaldiren bat antolatzen bada, antolatzaileak arduratu beharko dira lehen zegoen moduan lagatzeaz, hau da, garbi, txukun eta tresna barik.

*Hamalaugarrena:* Udalak ez du bere gain hartuko Herriko patioan gerta daitekeenaren erantzukizunik; erantzukizuna edozein motatakoa dela ere: zibila, penala, edo administratiboa.

*Hamabosgarrena:* Udalak ez du izango patioan gertatutako istripuen erantzukizunik.

*Hamaseigarrena:* Udalaren eskumenekoa izango da araudi honen aplikazioan sortutako zalantzen gaineko erabakiak hartzea eta aipatutako araudian aldaketak egitea, instalazioen erabilera hobetzeko helburuarekin.

Indarrean dagoen araudia, tarifak eta orduen taula agerian oholean egongo dira.

*Hamazazpigarrena:* araudi honetan ezarri ez denerako honen xedearekin zerikusia duen beste edozein legezko edo erregelamenduzko xedapenek diotena hartuko da kontuan.

Todos los nombres de las personas solicitantes o titulares de grupos entrarán en el primer sorteo. A medida que vayan apareciendo los nombres, solamente podrán escoger una hora de la tabla semanal.

Las horas libres se sortearán entre los/las solicitantes que no sean del pueblo y se seguirá el mismo procedimiento.

El sorteo se realizará en público, en el ayuntamiento. El/la concejal de deportes y el/la técnico se encargarán del sorteo. El/la concejal de deportes hará lo que esté en su mano para resolver cualquier conflicto que pueda surgir durante el sorteo.

*Séptimo:* se informará después de la semana de fiestas de Antzuola del resultado de turnos a las personas que se hayan apuntado.

Así, a partir de septiembre quienes tengan las reservas podrán jugar según el nuevo calendario.

*Octavo:* las tarifas de uso del patio del pueblo se establecerán mediante ordenanzas fiscales correspondientes.

La reserva del patio está prevista en la tarifa.

La reserva es de un máximo de una hora. Con los calentamientos no se podrá obstaculizar la actividad de la gente que esté usando la cancha, y mucho menos expulsarles.

*Noveno:* pago de tarifas.

El pago de las tarifas se realizará de forma mensual, mediante transferencia.

Quienes no paguen la tarifa, perderán su reserva, y así, esas horas quedarán libres para el resto de la gente.

No se admitirá la anulación de reserva después del cobro de la tarifa.

*Décimo:* durante el desarrollo de las actividades deportivas los/las estudiantes o usuarios/as de entidades o asociaciones estarán bajo la dirección de la persona encargada de los juegos, profesor/a, monitor/a, etc. y en cualquier caso serán las personas responsables del grupo. De lo contrario, la responsabilidad recaerá en los/las usuarios/as.

En caso de uso indebido de la zona cubierta de la escuela, el Ayuntamiento tendrá derecho a anular el permiso de uso. y en su caso, podrá abrir la vía sancionadora.

*Undécimo:* el Ayuntamiento se reserva el derecho a utilizar el patio para las actividades que considere convenientes y para las que se puedan organizar por orden o encargo.

*Duodécimo:* los vestuarios del patio de la escuela estarán a disposición de cualquier persona o equipo, cuando se considere necesaria su utilización, previa solicitud y autorización del Ayuntamiento.

*Decimotercero:* en caso de que se organice una actividad o evento deportivo extraordinario, los/las organizadores/as deberán dejarlo todo tal como estaba antes, es decir, limpio, recogido y sin elementos.

*Decimocuarto:* el Ayuntamiento queda exento de cualquier incidencia que surja en el patio del pueblo; sea cual sea el tipo de responsabilidad correspondiente: civil, penal o administrativa.

*Decimoquinto:* el Ayuntamiento queda exento de toda responsabilidad derivada de cualquier tipo de accidente.

*Decimosexto:* será competencia del Ayuntamiento la resolución de cualquier tipo de duda que surja en la aplicación de esta normativa, así como la modificación de la misma para mejorar el uso de las instalaciones.

La normativa, las tarifas y el horario vigentes estarán expuestos en el tablón del Ayuntamiento.

*Decimoséptimo:* para lo que no se haya definido en esta normativa, se aplicará lo establecido en cualquier otra disposición legal o reglamentaria relacionada con el objeto de esta ordenanza.

EK\CV GAO-I-2015-07706

*Azken xedapena:* Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN osorik argitaratu eta handik 15 egun baliodunera jarriko da indarrean ordenantza hau.

Antzuola, 2015eko abuztuaren 27a.—Beñardo Kortabarria Olabarria, alkatea. (7706)

*Disposición final:* esta ordenanza se publicará en su totalidad en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y entrará en vigor en un plazo de 15 días hábiles.

Antzuola, a 27 de agosto de 2015.—El alcalde, Beñardo Kortabarria Olabarria. (7706)

EK\CV GAO-I-2015-07706